

ALC^K

AGIRRE LEHENDAKARIA CENTER
for Social and Political Studies



ETORKIZUNeko LIDERRAK PRESTAKUNTZA PROGRAMA 2019/2020
PROGRAMA FORMATIVO LÍDERES DEL FUTURO 2019/2020

IZENBURUA: EAEKO IKASLE ETORKINEN EDOTA IKASLE ETORRI BERRIEN
BEHARRAK ETA PREMIA HORIEI AURRE EGITEKO NEURRIAK
EGILEA: LAURA SAINZ GÓMEZ

EAEko ikasle etorkinen edota ikasle etorri berrien beharrak eta premia horiei aurre egiteko neurriak

Laburpena

EAEko hezkuntza-sisteman eskolaratzen diren ikasle etorkin eta etorri berri gehienek D ereduan (euskara bidezko murgiltze eredua) edo B ereduan (euskara eta gaztelania bidezko programa elebiduna) ematen dute izena, bertako ikasleen antzera. Hizkuntza-eredu horietan eskolaratutako ikasle etorkinek edota etorri berriek, euren ikaskuntza-prozesua jarrai dezaten, euskara ikasi behar dute, bai eguneroko harremanetan parte hartu ahal izateko, bai edukiak ulertzeko eta ikasi ahal izateko. Beraz, ikasle horiek zailtasunak izango dituzte eskola-hizkuntzarekin eta arlo akademikoekin. Behar horiei aurre egiteko mundu mailan proposatu diren laguntza-lerroak azalduko ditugu, eta EAEko Hezkuntza Sailak argitaratutako proposamenak eta neurriak bilduko ditugu.

Hitz-gakoak: ikasle etorkinak, ikasle etorri berriak, euskara, eskola-hizkuntza, arlo akademikoak, laguntza-lerroak



1. EAEko EUSKAL HEZKUNTZA-SISTEMA ETA IKASLEAK

Euskal Autonomia Erkidegoko (aurrerantzean EAE) hezkuntza-sistema euskararen oinarritutako hezkuntza-sistema eleaniztuna dela esan dezakegu; izan ere, euskara normalizatzeko eta ikasle eleaniztunak sortzeko helburu bikoitza duen hezkuntza-sistema da.

Alde batetik, iraganeko debekuak atzean utziz eta aldaketa soziopolitiko jakin batzuei esker, euskara biziberritzeko prozesua martxan jarri zen, eta, ondorioz, Eusko Jaurlaritzak 1983an Elebitasun Dekretua (138/ 1983 Dekretua, uztailaren 11koa) aldarrikatu zuen. EAEko Elebitasun Dekretuak 138/1983 (BOPV 108/ 19-7-1983) eskolan euskara sartzeko eta bi hizkuntza ofizialak (euskara eta gaztelania) irakasteko bidea finkatu zuen: euskararen sarbidearekin EAEko hezkuntza-sistema elebiduna bilakatu zen, euskara eta gaztelania derrigorrezko ikasgaiak bihurtu ziren eta gaur egun indarrean dauden *irakaskuntza elebiduneko hizkuntz ereduak* (A, B eta D ereduak) zehaztu ziren (Cenoz, 2009a; Erriondo et al., 1993; Etxeberría & Elosegui, 2010). Laburbilduz, lege horrek euskara ikasteko aukera bermatzen du eta posibilitate hori egi bihurtzeko bidea ezartzen du, hizkuntza-ereduak zehazten ditu, alegia. Zehazki, hauek dira hiru ereduaren ezaugarri eta helburu nagusienak (Cenoz, 2009a; Erriondo et al., 1993; Eusko Jaurlaritza, 1990):

- A ereduak: irakasgai guztiak, euskara salbu, gaztelaniaz irakasten dira. Euskara ikasgai-modura beste edozein gai bezala emango da, Hezkuntza Sailak erabaki dezakeen ordu kopurua eskainiz astero eginkizun horri. Hauek dira A ereduaren helburuak: euskarazko ulermen-gaitasun ona eskuratzea, eguneroko gaiak euskaraz jorrazteko irakasleak prestatzea eta euskararekiko jarrera positiboak garatzea.
- B ereduak: Bai gaztelania, bai euskara, biak beste irakasgaiak lantzeko erabiliko diren hizkuntzak dira. Gaztelania, berez, irakurketa-idazketa prozesuetarako eta matematika bezalako irakasgaietako erabiliko da. Euskara beste arloetako gaiak lantzeko: esperientziak, plastika eta dinamika bereziak. Euskara eta gaztelania irakasgai-eran ere landuko dira, astero, eginkizun horri Hezkuntza Sailak erabaki dezakeen ordu-kopurua eskaini beharko zaiolarik. Hauek dira B ereduaren helburuak: euskarazko ulermen-gaitasun oso onak eskuratzea eta beharrezkoak diren ekoizpen-gaitasunak (euskaraz lan egiteko) eskuratzea eta ikasleak prestatzea etorkizuneko ikasketak euskara bidez burutzeko helburuarekin.
- D ereduak: irakasgai guztiak, gaztelania salbu, euskaraz landuko dira funtsean. Euskara bera ere irakasgai-moduan landuko da, astero eginkizun horri

Hezkuntza Sailak erabaki dezakeen ordu kopurua eskaini beharko zaiolarik. Gaztelania eskolako beste edozein irakasgai bezala emango da. Hauek dira D ereduaren helburuak: euskara mintzatzeko eta ikasteko hizkuntza izan dadin, beharrezkoak diren hizkuntza-gaitasunak eta -konpetentziak garatzea, euskaldun komunitate sendoa sortzea, eskolak euskara sustatzen duten gunea izan daitezen eta gaztelaniazko jakintza egokia lortzea.

Beste aldetik, EAEko hezkuntza-sistema eleaniztuna dela esan dugu, ikasle eleaniztunak prestatzeko apustua baitu. EAEko Hezkuntza Sailak, Europako Kontseiluak eskainitako aholkuei jarraikiz (europar eleaniztunak hezteko helburuak, irakaskuntza-aholkuak eta ebaluazio-irizpideak), hezkuntza-sistema eleaniztuna diseinatu zuen, eta lehenengo hizkuntza eta beste bi hizkuntza erabiltzeko gai diren hiztun eleaniztunak hezteko helburua zehaztu zuen (Cenoz, 2009). Zehazki, hauxe aitortu du 2015eko abenduaren 22an argitaratu zuen EAEko 236/2015 Dekretuan (Oinarrizko Hezkuntzarako curriculuma zehazten duen eta EAEn ezartzen duen dekretuan):

Gaur egungo errealitate eleaniztunaren testuinguruan, elebiduntasun desorekatutik eleaniztasunerako bidea egiten ari da euskal gizartean; hori horrela, askotariko egoera soziolinguistikoei buruzko gogoeta egitea lagungarria da, oro har, hizkuntza-aniztasunari buruzko jarrera positiboak lantzeko, eta zehazki, euskararen normalizazio-prozesuari buruzko jarrera positiboak sustatzeko. Horrez gainera, hizkuntzen erabilera egokitasunez kudeatzeko ahalmena garatu behar da, eta egoera eleaniztunetan modu proaktiboan eta ekitatez parte hartzen jakin behar da (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, 2016; 236/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena., 2016).

Hori dela eta, aurretik zehaztutako eta martxan jarritako hizkuntza-ereduak birmoldatu zituzten, eta gutxienez atzerriko hizkuntza bat sartzeko planteamendua burutu zuten:

1. Taula EAEko gaur egungo ereduak


Eredu ofizialak	A: Gaztelania B: Gaztelania eta euskara D: Euskara
Mota berriak	A+ ingelesa: A ereduak, eta ingelesa bidezko ikasgaien bat/ batzuk B+ ingelesa: Euskara, gaztelania eta ingelesa bidezko ikasgaiak D+ ingelesa: Euskara irakaskuntzako hizkuntza nagusia, eta ingelesa bidezko ikasgaiak ere.

Iturria: Cenoz, 2009, p. 52

Hizkuntza-eredu bakoitzak dituen ezaugarriak kontuan hartuta eta eskaintzen dituen aukerak ikusita, EAEko hezkuntza-sisteman eskolaratuta dauden ikasle gehienen gurasoek D eredia aukeratzen dute, eredu horrek posible egiten baitu elebitasun eta alfabetatze bikoitza, bai euskaran, bai gaztelanian, atzerriko hizkuntza bat ikasten duten bitartean. Datu eta estatistika ofizialetara jotzen badugu, argi eta garbi ikus dezakegu aurretik planteatutako baieztapena: 2018-2019 ikasturtean, ikasleen % 74,56 eskolaratu zen D ereduan, % 20,17 B ereduan eta % 5,27 A ereduan (Eustat, 2019). Datuek baieztatzen duten moduan, EAEko gurasoek murgiltze-eredua (D eredia), eta eredu elebiduna (B eredia) kopuru gutxiagoan, aukeratzen dute euren seme-alabentzat, D ereduak dituen abantaila soziolinguistikoez ohartuta (elebitasun bikoitza, elebitasun gehigarria eta alfabetatze bikoitza).

Beste eremu edo lurralde batetik heltzen diren haur eta gazteek ere hizkuntza-eredu elebidunetan ematen dute izena; beste era batera adieraziz, Espainiako estatuko beste erkidego batetik edo Espainiatik kanpoko herrialde batetik heltzen diren ikasle etorri berriak ere D edota B ereduetan eskolaratzen dira batez ere. 2017/2018 ikasturteko datu orokorrak aztertzen baditugu, aurreko baieztapena konfirmatuko dugu: Haur Hezkuntzan eta Derrigorrezko Hezkuntzan (Lehen eta Bigarren Hezkuntzan) eskolaratutako 22.183 ikasleetatik (atzerrian jaiotako ikasleetatik), 13.900 ikasle D ereduan matrikulatuak izan dira, 2.123 ikasle A ereduan eta 5.067 ikasle B ereduan. Hurrengo grafikoak argi eta garbi islatzen ditu datu horiek:

1. Grafikoa. Atzerrian jaiotako ikasleen ehunekoa hizkuntza-ereduaren arabera



Iturria: EUSTAT (nik egindakoa)

Gainera, azpimarratzekoa da joera hori mantendu egiten dela hezkuntza-etapa guztietan, Haur Hezkuntzatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara, hain zuzen ere.

Laburbilduz, EAEko hezkuntza-sistemak sekulako apustua egin zuen euskararen alde: euskara normalizatzeko, zenbait neurri eta ekimenen artean, hezkuntza-sistema euskararen inguruan ardaztu zuen. Ikasle gehienak, ikasle etorkinak eta etorri berriak barne, hizkuntza-eredu elebidunetan (batez ere D ereduan, eta B ereduan neurri gutxiagoan) eskolaratzen dira. Beraz, beste lurralde batetik heltzen diren haur eta gazte horiek, D edota B ereduetan eskolaratzen diren heinean, zailtasun jakin batzuk edukiko dituzte, hezkuntza-sistemak eta eskolek aurre egin behar dituztenak.

2. IKASLE ETORKINEN EDOTA ETORRI BERRIEN BEHARRAK

EAEko hezkuntza-sisteman eskolaratzen diren ikasle etorri berriek edota etorkinek eskola-hizkuntza eta irakasten diren bestelako hizkuntzak eskuratu behar dituzte; hau da, EAEko hezkuntza-sisteman eskolaratzen direnek, seguruenik, euskara (eskola-hizkuntza) eta beste bi hizkuntza, gaztelania eta ingelesa, ikasi beharko dituzte. Egia da irakasten diren hizkuntza guztiak garrantzitsuak direla, baina euskara eskuratzea ezinbestekoa da ikasle guztientzat (ikasle etorkinak edota etorri berriak barne), bai eguneroko egoera komunikatiboetan parte hartu ahal izateko, bai ikaskuntza-prozesuaren parte izan ahal izateko. Beste era batera adieraziz, ikasle guztiek gaitasun linguistiko bikoitzak garatu behar dituzte: batetik, komunikaziorako gaitasunak, ikaskideekin eta irakasleekin elkar ulertzeko; bestetik, gaitasun linguistiko akademikoak, ikasgaietako edukia ulertzeko eta ikasketa prozesuan parte hartzeko (Cummins, 1981; Oller & Vila, 2008; Vila, 1987, 2008). Ikasle etorkinek eta etorri berriek ere gaitasun bikoitz hori eskuratu behar dute eskola-hizkuntzan, euskarari, alegia.

Pentsa daiteke bi gaitasun horiek nahiko antzekoak direla edota gaitasun bat eskuratzeak bestea bereganatzea dakarrela, baina hizkuntza-gaitasun horietako bakoitzak bere ezaugarri eta inplikazio propioak ditu. Hurrengo taulak gaitasun komunikatiboen eta gaitasun akademikoaren ezaugarriak eta ezberdintasunak biltzen ditu:

2. Taula. Gaitasun komunikatiboak eta gaitasun linguistiko akademikoak

Gaitasun komunikatiboak	Gaitasun linguistiko akademikoak
Ikaskideekin eta eskola-langile anitzekin aurrez aurreko elkarriketa bat izateko gaitasuna, hainbat ingurutan, ikasgelan eta ikasgelatik kanpo.	Interakziorako aukera gutxiago daudenean ulertzeko gaitasuna, adibidez, maisu baten ikasgai baten aurkezpena entzutean edo testuliburu bat irakurtzean.
Familiako edukiaz edo hemen eta orain gertatzen ari denaz hitz egiteko, irakurtzeko edo idazteko gaitasuna. Ikasleak informazio pertsonala trukatzeko edo jarduera praktikoa batean elkarrekin lan egiten egon daitezke.	Aldez aurretik ikasitakoarekin edo esperientzia pertsonalarekin lotura txikiagoa duen edukiari buruz hitz egiteko gaitasuna, irakurtzeko eta idazteko gaitasuna. Eduki horiek abstraktuagoak dira eta denboran edo

	espazioan urrunago daude, adibidez: uraren zikloari buruz ikastea, lurrazala ikastea edo Bigarren Mundu Gerrari buruz ikastea.
Oinarrizko hiztegia/maiztasun handiko hitzak ezagutzea, hala nola automobilak, kamioiak edo janaria. Hauek dira bertako hiztun gehienek eskola hasi aurretik ezagutzen dituzten hitzak.	Hiztegi sofistikatuagoa edota maiztasun txikiagokoa ezagutzea, ibilgailuak edo nutrizioa bezalako hiztegi abstraktua edo kontzeptuala erabiltzea, eta eguneroko baliokidea erabili beharrean hiztegi mota hori noiz erabili ulertzea.
Hitz arrunten esanahi literalak ulertzeko gaitasuna.	Testuinguruaren arabera esanahiak aldatzen dituzten edo esanahi figuratiboak edo metaforikoak dituzten hitzak ulertzeko eta erabiltzeko gaitasuna.
Perpau sinpleak eta gramatika-egiturak erabiltzeko gaitasuna "ura berotzen dugu irakiten duen arte. Termometro bat erabiltzen dugu tenperatura neurtzeko".	Perpau eta egitura gramatikal konplexuagoak erabiltzeko gaitasuna: "Ura irakiteraino berotu zenean, termometro bat erabili zen tenperatura neurtzeko".

Iturria: Coelho, 1998, p. 60 (nik itzulitakoa)

Helburu bikoitz hori lortzea ez da erraza, eta, batez ere, gaitasun linguistiko akademikoak eskuratzea askoz konplexuagoa eta berantiarragoa da; izan ere, hainbat ikertzailek frogatu dute askoz denbora gehiago behar dutela eskola-hizkuntzaren gaitasun linguistiko akademikoak eskuratzeko (hizkuntza gaitasun akademikoak lortzeko 6 urte inguru; gaitasun komunikatiboak eskuratzeko 2 urte inguru) (Cummins, 1981; Collier & Thomas, 1989; Hakuta et al., 2000; Huguet et al., 2007; Levin & Shohamy, 2008; Navarro & Huguet, 2005; Oller & Vila, 2008; Ramirez, 1991). Orduan, ikasle batek eguneroko harremanetan eta egoera komunikatiboan parte hartzen duela antzematen badugu, horrek esan nahi du komunikaziorako gaitasunak eskuratu dituela; baina ez du zertan gaitasun linguistiko akademikoak garatu eta klase orokorreko erritmoa inolako laguntzarik gabe jarraitzeko kapaza izan (Coelho, 1998).

Logikoa denez, ikasle etorri berriek edota etorkinek laguntza akademikoa ere beharko dute, aurreko eskolaldiak eduki zezakeen hutsunea edota harrera-komunitateko ikaskuntza-prozesua jarraitu ahal izateko. Horretarako, eskolan erabiltzen diren hizkuntzak jakitea garrantzitsua da, eskola-hizkuntzaren bitartez transmititzen baitira edukiak eta eraiki egin baita ezagutza. Izan ere, eskolaren esparruan gauzatzen diren harremanak (irakaslearen eta ikasleen artean eta ikaskideen artean) erabakigarriak dira ezagutzaren eraikuntzan eta ikasi-irakaskuntza prozesuetan; hau da, curriculumeko edukiak transmititzeko eta ezagutza eraikitzeko eskola-hizkuntza ezinbestekoa da. Beraz, laguntza akademiko hori maiz hizkuntza-laguntzarekin erlazionatuta dago (Coelho, 1998, 2012; Dumcius et al., 2012; Tébar, 2006).

3. HARRERA-GIZARTEAK GARATU DITZAKEEN NEURRIAK

Aztertu dugun moduan, ikasle etorkin edota etorri berrientzat eskolan erabiltzen den hizkuntza oztopo eduki dezakete, aurreko eskolaldiaren ikasketa-plan ezberdina edo eskasa izan daiteke eta halere, ikaskuntza-prozesuarekin jarraitu behar dute. Horrenbestez, ikasle horiek hizkuntza laguntza eduki behar dute ikasten jarraitu ahal izateko, ezagutzaren eraikuntzan parte hartu ahal izateko eta eskolan parte hartzeko, eta eskola-hizkuntza menderatzeko laguntza sistematikoa eta ebaluazioa eskaintzea funtsezkoa da eta hizkuntza-laguntzak hezkuntza-politikaren eta eskola-antolamenduaren zati garrantzitsua izan behar du. Gainera, laguntza akademikoa ere behar dute; hori dela eta, pedagogia- eta antolaketa-estrategiak garrantzitsuak dira, eta, askotan, laguntza akademikoa eta hizkuntza-laguntza uztartzen dira, batez ere hasierako hilabeteetan, eta martxan jartzen dira harrera-programak, eskolatze-maila egokiaren ebaluazioa, asistentzia elebiduna edo laguntza akademikoa berezia. Hori dela eta, ezinbestekoa da eskola-hizkuntzaren irakaskuntza eta curriculumeko edukirik irakasteko programa bateratzea; hau da, ikasle horiek behar dute programa akademikoa bat, zeinak kontuan hartzen dituen eskola-hizkuntzaren ikaskuntzan dituzten beharrak eta euren ikaskuntza-prozesuarekin jarraitzeko beharrak (Coelho, 1998, 2012; Dumcius et al., 2012; Etxague et al., 2010; Etxeberria & Elosegui, 2010; Tébar, 2006). Dumcius eta bere kideek (2012), Europako herrialde batzuen hezkuntza-sistemak eta laguntza-neurriak konparatzen dituzten txosten batean, eskola-hizkuntza eta arlo akademikoa ikasle etorri berriei irakasteko laguntza-lerroak proposatu dituzte. Hauek dira eskaintako aholkuak:

3. Taula. Eskolan garatu daitezkeen neurriak laguntza-lerroaren arabera

Laguntza-lerroa	Neurriak/ Irizpideak
Hizkuntza-laguntza	<ul style="list-style-type: none">- Harrera-hizkuntzaren edota eskola-hizkuntza ebaluatzea- Irakaskuntzarako erabiltzen den hizkuntza irakastea- Trantsizio klaseak edota eskola ondoko klaseak- Eskola-hizkuntza H2 bezala irakasteko irakasleak prestatzea- Lehenengo hizkuntza irakastea
Laguntza akademikoa	<ul style="list-style-type: none">- Eskolatze maila egokia zehaztea eta harrera neurriak garatzea- Hezkuntza elebiduna eta beharrak curriculumeko jakintza-eremuetan txertatzea- Tutoreak, irakasle- edota ikasle-laguntzaileak izatea- Eskolaz kanpoko ekintzak edota lekuak eskaintzea

Iturria: Dumcius et al., 2012, pp. 9-10 (nik itzulitakoa)

Ildo beretik, Coelhok (2012) ere proposamen bat planteatzen du, eta bere proposamena oso baliagarria da ikasle etorkinen edota etorri berrien beharrak asetzeko, bai eskola-hizkuntzarekin lotutakoak, bai arlo akademikoekin lotutakoak. Izan ere, bi erronka horiei aurre egiteko irizpideak eskaintzen ditu:

4. Taula. Ikasleen beharrak asetzeko eta eskola-komunitate inklusiboa eraikitzeke irizpideak

ESPARRUA	ESKOLA MAILAN
Eskola-hizkuntza	<ul style="list-style-type: none"> - Ikasle guztiek eskola-hizkuntzaz jabetzeko laguntza-programa planifikatua jasotzen dute. Epe luzerako da laguntza hori. - Profesional kualifikatu (eskola-hizkuntza H2 moduan irakasteko) bat arduratzen da. - Gaitasun komunikatiboak eta akademikoak eskuratzeko dagozkien eduki-multzoak barneratzen dituzte. - Irakasleak komunikazio-giroa sortzen du: errutinak (eginbeharrak transmititzeko etxerako lanak birgogoratzeko, ardurak txandakatzeke) eta babes-giroa. - Hizkuntza-jabekuntza eta komunikazioa sustatzeko estrategia eta metodologia egokiak eta anitzak erabiltzen ditu: elkarriketak, taldeko ideia-jasa, ikaskuntza-taldeak, puzzle-jarduerak, lankidetzaproiektuak, hiztegi elebidunak, hausnarketa metalinguistikoa, etab. - Ebaluazio egokia, pertsonala eta aberasgarria egiteko, H2aren irizpideak eta ebaluazio-ataza alternatiboak erabiltzen dituzte: lanak, portafolioa, etab.
Arlo akademikoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ikasle guztiek ibilbide akademikoa jarraitzeko eta irakaskuntza-hizkuntza ikasteko hezkuntza-programa planifikatua dute. - Ikasgaietako edukia eta kontzeptuak esplizituki irakasten dituzte, kontzeptu-esparru bateratuan lan eginez eta hiztegi zein material elebiduna erabiliz. - Ahozko zein idatzizko informazioa kudeatzeko estrategia ugari erabiltzen dituzte: grafikoak, mapa mentalak, mapa kontzeptualak, DNI diagrama eta bestelako diagramak, etab. - Edukiaren aspektu linguistikoak eta hizkuntza-ezaugarriak lantzeko estrategiak: idazteko aldarnioak, testuen birformulaketa, testu-ereduak, kontrol-zerrendak eta errubrikak, etab. - Komunikazio-giroa sortzeko eta elkarrekintza bultzatzeko estrategiak: ikaskuntza-bikoteak, ikaskuntza-taldeak, lankidetzaproiektuak, elkarriketak, taldeko ideia-jasa, puzzle-jarduerak, etab. - Ebaluazio egokia, pertsonala eta aberasgarria egiteko, H2aren irizpideak eta ebaluazio-ataza alternatiboak erabiltzen dituzte: testu edo liburu elebidunak, proiektuak, lanak, portafolioa, etab.

Iturria: Coelho, 2012 (nik egindakoa)

Hizkuntza-laguntza eta laguntza akademikoa oso baliagarriak dira eskola-hizkuntza irakasteko eta arlo akademikoen irakaskuntza indartzeko; beraz, konpentsazio-neurriak edota -laguntzak dira. Egia da konpentsazio-neurri horiek baliagarriak direla, baina ez dira kontuan hartu beharreko alderdi bakarrak. Dumcius eta bere kideek (2012), Europako herrialde batzuen hezkuntza-sistemak eta neurriak konparatzen dituen ikerketa batean, azpimarratzen dute konpentsazio-neurri indibidualak garatzeaz gain, kulturarteko hezkuntzan oinarritutako eskolak eraikitzea ere premiazko helburu bat dela. Izan ere, ikertzaile eta autore askok aldarrikatzen duten moduan (esate baterako Banks & Banks, 2015; Besalú et al., 1998; Giménez, 2003, 2008; Lluch i Balaguer, 2005; Malgesini & Giménez, 2000), oso beharrezkoa da gero eta pluralagoa den gizartean

errespetuz eta tolerantziaz jarduten duten ikasleak (eta etorkizuneko gizakideak) prestatzea. Ikasleek gai izan behar dute euren hizkuntza eta kultura propioa errespetatzen, beste pertsonak eta euren hizkuntzak eta kulturak ezagutzen eta errespetatzen, eta elkarbizitzako eta elkar-ulertzeko baloreak eskuratzen. Helburu horiek lortzeko, honako pausuak oso beharrezkoak dira: batetik, hizkuntza-aniztasuna sustatzen duten eta kultura-aniztasuna onartzen duten hizkuntza-politikak indartzea; bestetik, eskolak eta hezkuntza-sistemak kulturartekotasunean eta aniztasunean oinarritutako hezkuntza martxan jarri behar du, kulturarteko konpetentzia eta kontzientzia garatzeko egokitzapenak eginez, bai curriculumean eta edukietan, bai irakasteko metodologietan eta materialean. Antzeman dezakegun moduan, kulturarteko hezkuntza oso onuragarria da ikasle guztientzat, bai ikasle etorkin edo etorri berrientzat, bai tokian tokiko bertako ikasleentzat (Beacco et al., 2007; Coelho, 2012; Dumcius et al., 2012; König, 2001; López & Küper, 1999; Ortega et al., 2004; Yağmur, 2015).

4. EAEko HEZKUNTZA-SISTEMAK MARTXAN JARRITAKO NEURRIAK

EAEko hezkuntza-sistemara eskolaratzen diren ikasle etorri berriek edota etorkinek dituzten zailtasunak eta beharrak kontuan harturik, Hezkuntza Sailak neurri jakin batzuk diseinatu eta martxan jarri ditu ikasle horien beharrak asetzeko eta eskola arrakastatsua eraikitzeko asmoarekin. Hona hemen argitaratutako orientabideak edota programak:

2007. urtetik aurrera, ikasle etorkinak artatzeko planak edo proposamenak argitaratu izan ditu. Azken bi zikloetan, honako hauek plazaratu dituzte: “2012-2015eko eskola inklusiboaren eta kultura artekoaren eremuan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko plana (Eusko Jaurjaritza, 2012) eta “2016-2020ko eskola inklusiboaren eta kultura artekoaren eremuan ikasle etorkinei hezkuntza- arreta emateko II. Plana” (Eusko Jaurjaritza, 2017). Lehenengo planak eskola inklusiboa eraikitzeko eta hezkuntza-erantzun eraginkorra emateko (harrera, hizkuntza- eta hezkuntza-laguntza) xede orokorra du, eta hezkuntza-kultura, -politika eta -jardueretan kulturarteko ikuspegia txertatzeko helburuak, xedeak eta adierazleak zehazten ditu. Aurreko planaren ildotik, bigarren plan horrek eskola inklusiboa sortzeko (guztientzako kultura arteko hezkuntza eskaintzea eta ikasle etorri berriei hezkuntza-arreta ematea) printzipio eragileak eta esku-hartzea zehazten ditu: ardatz estrategikoak, helburuak, jarduerak eta adierazleak.

Aurrekoaz gain, Hezkuntza Sailaren Argitalpen Zerbitzuak “Ikasle etorkinentzat harrera-plana egiteko orientabideak” dokumentua argitaratu du (Ortega et al., 2004). Bertan, ikasleak artatzeko proposamenak iradokitzen dira, bai eta hizkuntza-programa indargarria egiteko eta arlo akademikoak irakasteko orientabideak ere: hizkuntza-

helburuak zehaztu, gela barruko eta gela kanpoko zereginak zehaztu, ikaskuntza-prozesua epetan banatu, lan-planaren ebaluazioa zehaztu.

Aurrekoaren ildotik, “Zubirik Zubi” orientabide eta material bildumak ikasle etorri berriak edota etorkinak artatzeko eta beharrak asetzeko proposamenak eta adibideak biltzen ditu, honako behar-lerro hauek jorratuz: eskola-hizkuntza, curriculum, harrera. Hizkuntza esparruan esate baterako, beste hizkuntza bat irakasteko honako metodologia-irizpideak eskaintzen dituzte: bigarren hizkuntza edukien bidez irakastea, harremanetarako hizkuntza eta hizkuntza akademikoa ezberdintzea eta komunikaziorako ingurunea sortzea (komunikazioa, ekintza komunikatiboaren eta jardueren testuingurua eta horren garrantzia, esangura) (Ortega & Eguzkiza, 2003).

Ikasleen beharrei erantzuten laguntzeko eta aurretik aipatutako laguntza-lerroak gauzatzeaz arduratzeko irakasle bat dago: Hizkuntza Indartzeko Proiektu Irakaslea. Zehazki, profesional horiek arduratzen dira etorkinen harreraz, eskola-hizkuntza irakasteaz, hezkuntza-arretaz, materiala moldatzeaz, ikasleen jarraipenaz eta ebaluazioaz.

Eusko Jaurlaritzak beste zenbait dokumentu argitaratu ditu eta bestelako programak ere martxan jarri ditu, adibidez: EAEko hezkuntza sistemari buruzko informazioa familia etorkinentzat: arabieraz, portugesez, txineraz, errumanieraz, frantsesez, ingelesez eta errusieraz (Eusko Jaurlaritza, 2007), “Hamaika Esku” programa (Eusko Jaurlaritza, 2016), *Programa hispano-marroquí de enseñanza de lengua árabe y cultura marroquí* eta *Programa Lengua y cultura Portuguesa*.

5. ONDORIOAK

Beste lurralde batetik heltzen diren eta EAEko hezkuntza-sistemara eskolaratzen diren ikasleek zailtasun edo oztopo batzuk dituzte euren ikaskuntza-prozesuarekin jarraitu ahal izateko. Izan ere, EAEko hezkuntza-sisteman eskolaratzean hizkuntza-eredu bat aukeratu behar dute, eta hizkuntza-ereduetan izena emateko joerak adierazten du ikasle etorkin edota etorri berri gehienek euskara bidezko irakaskuntza nahiago dutela eta, hortaz, batez ere D eredu (euskara bidezko murgiltze-programan), eta B eredu (euskara bidezko programa elebiduna) portzentai baxuagoan, eskolaratzen dira ikasle horiek. Bi eredu horien nagusitasunak suposatzen du euskara eskola-hizkuntza dela; hau da, euskara komunikazio tresna nagusia dela ikasleen artean eta irakasle-ikasleen artean, eta edukiak ulertzeko, zailtasunak argitzeko, ezagutza eraikitze eta eguneroko ikaskuntza-harremanetan parte hartzeko euskara jakitea garrantzitsua dela.

Horrenbestez, ikasle etorkinek eta etorri berriek euskarazko gaitasun komunikatiboak eta gaitasun linguistiko akademikoak eskuratu behar dituzte (bertako ikasleen moduan). Hori dela eta, ikasle horiek laguntza behar dute eskola-hizkuntzaren jabekuntzan eta, logikoa denez, arlo akademikoen ikaskuntzan ere laguntza beharko dute, ez baitituzte ezagutzen ezagutzak transmititzeko eta ikaskuntza-prozesua eraikitzeko erabiltzen diren hizkuntzak (batez ere euskara).

Hizkuntzaren oztopo hori edukita eta eskolaldiarekin jarraitu behar dutela jakinda, ikasleek eskola-hizkuntzan trebatzea eta laguntza akademikoa behar dituzte; hori dela eta, pedagogia- eta antolaketa-estrategiak garrantzitsuak dira eskola sozial, kultural eta linguistiko anitzetako irakaskuntza eta ikaskuntza hobetzeko. Askotan, laguntza akademikoa eta hizkuntza-laguntza uztartzen dira, eta martxan jartzen dira harrera-programak, eskolatze-maila egokiaren ebaluazioa, asistentzia elebiduna edo laguntza akademiko berezia. Nahiz eta hizkuntza-laguntza eta laguntza akademikoa garrantzitsuak izan, ez dira kontuan hartu beharreko alderdi bakarrak, ezta martxan jarri beharreko neurri bakarrak. Beste era batera adieraziz, politika espezifikoko eta konpentsazio-neurri individual horiek oso eraginkorrak dira; hala ere, ez dira nahikoak giro inklusiboa sortzeko, ikasle etorkinen lorpen akademikoa bermatzeko eta gizarte tolerantetago eta inklusibetago bat eraikitzeko. Ondorioz, garrantzitsua da kulturarteko hezkuntza eraikitzea eta ikasleek behar dituzten hezkuntza-laguntza mota guztiak eskaintzea; hau da, hezkuntza-sistema inklusiboa bermatzea eta konpentsazio-neurri individualak, behar diren momentuetan (Dumcius et al., 2012).

Aurreko guztia kontuan hartuz, ikuspegi bikoitz hori jarraitu behar dugu hezkuntza-sistema bat eraikitzerako orduan eta konpentsazio-neurriak martxan jartzerako orduan. EAEko hezkuntza-sistemarako diseinatu diren planak, eskaini diren orientabideak eta martxan jarri diren programak ere aztertu behar ditugu ikuspegi bikoitz horretatik, eta ikasle guztien (ikasle etorkinak eta etorri berriak barne) arrakasta akademikoa eta parte hartze soziala bermatzen dituen hezkuntza inklusiboa eraiki behar dugu, ikasle bakoitzak dituen beharrak kontuan hartuz eta behar horiei aurre egiteko laguntza indibiduala eskainiz.

6. BIBLIOGRAFIA

- Banks, J. A., & Banks, C. A. M. (Arg.). (2015). *Multicultural education: Issues and perspectives* (Ninth edition). John Wiley & Sons, Inc.
- Beacco, J. C., Byram, M., & Conseil de l'Europe Division des politiques. (2007). *Guide pour l'élaboration des politiques linguistiques éducatives en Europe: De la diversité linguistique à l'éducation plurilingue : version intégrale*. Conseil de l'Europe.
- Besalú, X., Campani, G., Palaudàrias, J. M., & Alegret, J. L. (1998). *La educación intercultural en Europa: Un enfoque curricular*. Ediciones Pomares-Corredor.
- Cenoz, J. (2009a). *Towards multilingual education: Basque educational research from an international perspective*. Multilingual Matters.
- Cenoz, J. (2009b). *Towards Multilingual Education: Basque Educational Research from an International Perspective*. Multilingual Matters.
- Coelho, E. (1998). *Teaching and learning in multicultural schools: An integrated approach*. Multilingual Matters.
- Coelho, E. (2012). *Language and Learning in Multilingual Classrooms: A Practical Approach*. Multilingual Matters.
- Collier, V. P., & Thomas, W. (1989). How Quickly Can Immigrants Become Proficient in School English? *Journal of Educational Issues of Language Minority Students*, 5, 26–38.
- Cummins, J. (1981). *The Role of Primary Language Development in Promoting Educational Success for Language Minority Students*. Unpublished.
<https://doi.org/10.13140/2.1.1334.9449>
- Dumcius, R., Siarova, H., Balčaitė, I., Huttova, J., & Nicaise, I. (2012). *Study on Educational Support for Newly Arrived Migrant Children*.
- Erriondo, L., Isasi, X., & Rodriguez, F. (1993). *Hizkuntza, hezkuntza eta elebiduntasuna: Hizkuntzen arteko ukipen egoeraren teoria eta metodologia aplikatua*. Udako Euskal Unibertsitatea.
<https://dialnet.unirioja.es/servlet/libro?codigo=41199>
- Etxague, X., Cenoz, J., & Uria, M. (2010). Inmigración, lenguas oficiales y educación en el País Vasco. *SL&i en red: Segundas Lenguas e Inmigración en red*, 4, 6–20.
- Etxeberria, F., & Elosegui, K. (2010). Integración del alumnado inmigrante: Obstáculos y propuestas. *Revista Española de Educación Comparada*, 0(16), 235–264.

- Eusko Jaurlaritzak. (1990). *10 años de enseñanza bilingüe*. Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.
- Eusko Jaurlaritzak. (2007). *Euskal Hezkuntza Sistema. Sistema Educativo Vasco*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. https://www.berrigasteiz.com/site_argitalpenak/docs/120_diversidad/1202007001e_Pub_EJ_sistema_educativo_e.pdf
- Eusko Jaurlaritzak. (2012). *Ikasle etorkinei hezkuntza-arreta eskaintzeko plana Eskola eredu Inklusibo eta Kulturartekotaren barruan (2012-2015)*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritzak/-/plana_programa_proiektua/24-ikasle-etorkinei-hezkuntza-arreta-eskaintzeko-plana-eskola-eredu-inklusi-eta-kulturartekotaren-barruan-2012-2015/
- Eusko Jaurlaritzak. (2016, azaroak 22). *Programas de atención a la diversidad / Programa Hamaika Esku*. <https://www.euskadi.eus/informacion/programas-ligados-a-la-atencion-a-la-diversidad-programa-hamaika-esku/web01-a3hpbhl/es/>
- Eusko Jaurlaritzak. (2017). *2016-2020ko eskola inklusiboaren eta kultura artekoaren eremuan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Plana* (Servicio central de publicaciones del Gobierno Vasco). Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. <https://www.irekia.euskadi.eus/eu/debates/1098-2016-2020ko-eskola-inklusi-eta-kultura-artekoaren-eremuan-ikasle-etorkinei-hezkuntza-arreta-emateko-plana?stage=discussion>
- Eustat. (2019). *Alumnado matriculado en enseñanzas de régimen general no universitarias en la C.A. de Euskadi de nacionalidad extranjera por titularidad del centro y nivel de enseñanza, según territorio histórico y modelo lingüístico*. http://www.eustat.eus/elementos/ele0013200/Alumnado_matriculado_en_enseñanzas_de_regimen_general_no_universitarias_en_la_CA_de_Euskadi_de_nacionalidad_extranjera_por_titularidad_del_centro_y_nivel_de_enseñanza_según_territorio_historico_y_modelo_linguistico/tbl0013229_c.html
- Giménez, C. (2003). Pluralismo, Multiculturalismo E Interculturalidad. *Educación y futuro: revista de investigación aplicada y experiencias educativas*, 8, 11–20.
- Giménez, C. (2008). Aplicaciones del enfoque interculturalista: Políticas públicas, escuela, mediación, barrios y civismo. In G. Mantovani, *Intercultura e mediazione: Teorie ed esperienze*. Carocci.
- Hakuta, K., Butler, Y. G., & Witt, D. (2000). *How Long Does It Take English Learners To Attain Proficiency?* <https://eric.ed.gov/?id=ED443275>

- 236/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena., (2016) (testimony of Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila).
<http://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/-//eli/es-pv/d/2015/12/22/236/dof/eus/html/>
- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. (2016). 237/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa. <http://www.euskadi.eus/eli/es-pv/d/2015/12/22/237/dof/eus/html/web01-ejeduki/eu/>
- Huguet, Á., Navarro, J. L., & Janés, J. (2007). La adquisición del castellano por los escolares inmigrantes. El papel del tiempo de estancia y la lengua familiar. *Anuario de Psicología*, 38(3).
<http://www.redalyc.org/resumen.oa?id=97017407002>
- König, M. (2001). La diversidad cultural y las políticas lingüísticas. *Derechos Humanos. Órgano informativo de la Comisión de Derechos Humanos del Estado de México* 51, 51, 86–92.
- Levin, T., & Shohamy, E. (2008). Achievement of immigrant students in mathematics and academic Hebrew in Israeli school: A large-scale evaluation study. *Studies in Educational Evaluation*, 34(1), 1–14.
<https://doi.org/10.1016/j.stueduc.2008.01.001>
- Lluch i Balaguer, X. L. (2005). Educación intercultural y currículum: Una oportunidad de repensar la cultura escolar. *Multiculturalidad y educación : teorías, ámbitos y prácticas, 2005, ISBN 84-206-4736-5, págs. 179-216, 179–216.*
<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=1290101>
- López, L. E., & Küper, W. (1999). La educación intercultural bilingüe en América Latina: Balance y perspectivas. *Revista Iberoamericana de Educación*, 20, 17–85.
- Malgesini, G., & Giménez, C. (2000). *Guía de conceptos sobre migraciones, racismo e interculturalidad*. Libros de la Catarata.
- Navarro, J. L., & Huguet, Á. (2005). El conocimiento de la lengua castellana en alumnado inmigrante escolarizado en 1º de ESO, un estudio empírico. *Premios de Investigación Educativa 2003, 2005, ISBN 84-369-3941-7, págs. 73-102, 73–102.* <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2571417>
- Oller, J., & Vila, I. (2008). El conocimiento de catalán y castellano del alumnado de origen extranjero, tiempo de estancia en Cataluña y lengua inicial al finalizar la enseñanza Primaria. *SL&i en red: Segundas Lenguas e Inmigración en red*, 1, 10–24.

- Ortega, I., & Eguzkiza, M. J. (2003). *Hizkuntza: Beste hizkuntza bat irakasteko metodologia*. Zubirik zubi.
http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/dia6/eu_2027/adjuntos/zubirik_zubi/materiales_educacion_primaria/Dw_DOKUMENTUAK/MARKOAK.htm
- Ortega, I., Eguzkiza, M. J., & Ruiz de Garibay, M. (2004). *Orientaciones para la elaboracion del plan de acogida del alumnado inmigrante Ikasle etorkinentzat harrera-plana egiteko orientabideak*. Servicio central de publicaciones del Gobierno Vasco.
- Ramirez, J. D. (1991). *Longitudinal Study of Structured English Immersion Strategy, Early-Exit and Late-Exit Transitional Bilingual Education Programs for Language-Minority Children. Final Report. Volumes 1 and 2*.
<https://eric.ed.gov/?id=ED330216>
- Tébar, P. (2006). *La gestión de los centros educativos: Una propuesta intercultural*. Los Libros de la Catarata : Ministerio de Educación y Ciencia, Secretaría General y Técnica.
- Vila, I. (1987). *El uso del lenguaje en contextos educativos y contextos familiares* [Http://purl.org/dc/dcmitype/Text]. *Psicología y Educación : realizaciones y tendencias actuales en la investigación y en la práctica : actas de las II Jornadas Internacionales de Psicología y Educación, 1987*, ISBN 84-7522-636-1, págs. 234-238. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=574088>
- Vila, I. (2008). *Lengua familiar y conocimiento de la lengua escolar en Cataluña al finalizar la Educación Infantil = Home Language and Knowledge of the School Language in Catalonia at the end of Nursery School*. <https://dugi-doc.udg.edu/handle/10256/8558>
- Yağmur, K. (2015). Multilingualism in Immigrant Communities. In J. Cenoz, D. Gorter, & S. May (Arg.), *Language Awareness and Multilingualism* (or. 1–15). Springer International Publishing. https://doi.org/10.1007/978-3-319-02325-0_31-1